Ubarroiak akabatu nahi dituzte

Orain hiru urte egin zen lehenengo saioa

DENBORA LUZEZ GURE itsasertzetik ia desagertuta, azkeneko urteotan hegazti handi hauen itzulera ikusi dugu, kostaldean ez ezik barrualdeko urtegietan ere. Ubarroi handiak (*Phalacrocorax carbo*) eta, neurri askoz txikiagoan, ubarroi mottodunak (*Phalacrocorax aristotelis*) pelikanoen familiako hegaztiak dira, lehenengoa kostaldeko hegazti handiena. Poliki-poliki haien siluetak berriro ere ohiko bihurtu dira Euskal Herriko paraje askotan. Animalia hauek migratzaileak dira, eta gurera abuztutik maiatza arte hurbiltzen dira, ipar-hego migrazio mugimenduen ondorioz.

1992 urtean ikerketa bat egin zen ubarroi handien agerpena neurtzeko. Lan horren ondorioz, F. Campos eta J. M. Lekuonak 2.373 hegazti zenbatu zituzten otsailean Euskal Herrian eta Landasetan, 15 lotegitan bilduta. Horietatik mila inguru Euskal Autonomia Erkidegoan eta Iparraldean, eta beste hainbeste Nafarroan. Animalia hauen jatorria, orokorrean, Ipar Europan kokatu behar da: Britainia Handian, Danimarkan, Polonian eta Frantzian.

Gezurretan oinarritutako kanpaina

Ubarroiek arrainak jaten dituzte. Aipatutako ornitologoek egindako beste ikerketa baten arabera, hauexek dira hegaztiok jateko gehienetan harrapatzen dituzten espezieak: estuarioetan batez ere korrokoiak (*Quelon labrosus*) eta ibaietan aingirak (*Anguilla anguilla*); bietan platuxak ere (*Platichthys flesus*) ubarroien gustuko arrantza dira. Ikusten denez, ez dira eragin handiko konpetentzia arrantzaleentzat; eta are gutxiago, jakina, ehiztarientzat.

Hala ere, eta ehiztari batzuek teoria xelebre bat zabaltzeari ekin diote aurten, 1996ko neguan egin bezala. Horren arabera, ubarroiek gure ibaiak birpopulatzeko askatzen diren izokin eta amuarrainen arrainkumeak jaten dituzte, birpopulatze lan horiek arriskuan jartzeko moduan. Pasadizoak ez luke garrantzi berezirik izango, pertsona horien eragina hain handia izango ez balitz; horietako bat, esaterako, Gipuzkoan gehien saltzen den egunkariko berriemailea da eta tribuna horretatik bidaltzen ditu bere mezu «izadizaleak», inongo arazorik gabe. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiari ubarroiak kontrolatzeko neurriak eskatzen ari da, edozeinek susma ditzake neurriak alegia: animalia horien babespen sailkapena aldatzea ehiztarien eskopeten miran jartzeko. Eta noski, betikoa, azkeneko urteetan behin baino gehiagotan agertu dira ubarroiak tirokatuta.

Seguraski ez zegoen esan beharrik ubarroiak babestuta daudela Europako legedietan. Badarik ere, itzularoko ehizaren kasuan ongi ikusi den bezala, badakigu horrek ez duela garrantzi berezirik herri honetan, non gehienetan legaltasunaren aurretik sektore jakin batzuen interesak jartzen diren, batez ere horiek hainbeste diru eta hainbeste interes mugitzen dituztenean. Dena dela, hamaikagarren astakeria hau salatu gabe ez da gelditukо.

• Joxerra Zabala •

Ubarroi handia
(Phalacrocorax carbo)

Harrapariak, putreak, ubarroiak, lertxunak...

Fenomeno benetan bitxia azkeneko urteotan ikusten ari garena. Behin eta berriro, hainbat argudio erabiliz, zenbait espezie babesturen deskatalogazioa edo «kontrola» eskatzen ari da, funtsezko inongo ikerketa zientifikorik gabe. Seguraski, ezagunena saien kasua izan da, baina hori izeberraren tontorra besterik ez da izan.

Normalean, erabiltzen diren argudioak bitxiak dira: putreek aldatu egin omen dituzte jateko betiko ohiturak edo, oraindik harrigarriago, gure ibai askoren egoera larria ez omen da kutsaduraren edo gizakien eraginaren ondorioa, ubarroien agerpenaren ondorioa baizik. Multzo berean beste hegazti bat sartzen dute ehiztariek, lertxun hauskara edo koartza, hain zuzen, dirudienez gure ibaietan gertatzen diren izugarrizko txikizioen beste erantzule nagusia. Oraindik ez dute askorik aipatu, baina agertuko da; ikusiko duzue denborarekin.

Eta fenomeno harrigarri horien atzean, gehienetan, ehiztariak, *ehiztari ekologistak* noski, ingurugiroa zientzialarien maila berean ezagutzen dutenak eta auskalo nork emandako funtzio garrantzitsu bat betetzen dutenak, hots, oreka ekologikoa gordetzeko lana. Horrela esanda, txantxa ematen du; zoritxarrez, horietako asko instituzioetako arduradunak dira. Hori jakinda, gure izadiarentzat txistea nahiko beltz bihurtzen da.

Jakingarria

Hezegune baten txikizioa

Nafarroako Gure Lur Elkarteak Caparrosotik gertu dagoen Aragoi ibaiaren ibarbaso baten txikizioa salatu du. Informazio horien arabera, sarritan ikusi dugun prozesu bat errepikatzen ari da inguru horretan: inpunitate osoarekin, hondakinak bota eta betelanak egin dira, hezegunea desagertarazteko. Dagoeneko bertan zeuden urmaela eta larrea estaliak dira. Dirudienez, inguruko biztanleek berek salatu dute egoera, eta ekologistek, isurketak gelditzeko ez ezik, ingurua lehengoratzeko ere eskatu dute.

Argitalpena

'Quercus'

Espainiako aldizkari horren otsailaren zenbakiak bi artikulu dakartza nolabait Euskal Herriarekin lotuta: Mikel Gorrotxategik euskal abizenek eta izadiak duten erlazioaren inguruko ikerlana, eta Asturiasko kostaldeko eta Bizkaiko Golkoko hegazti-migrazioei buruzko erreportaia. Bigarren lana Alfredo Noval sarritan gure kostaldean ibilitako ornitologo ezagunak egin du.

Deialdia

'The Ecologist'-en alde

Monsanto multinazionalaren basakeriak salatuz *The Ecologist* aldizkari britainiarrak jasan zuen zentsura salatzeko eta aldizkariari elkartasuna adierazteko, prentsaurrekoa emango du bihar CCOOk, Errekak eta Bakeaz-ek osatutako plataformak. Bilbon izango da, goizeko 11:30etan.

berde bizi

e-posta:
zabalagir@bezeroak.euskaltel.es